


# Noaia !!



Herri bideen inbentario berria osatu nahi da

Erretzeko egokitutako gunea



Sarrera debekatua  
16 urtetik beherakoei



Erretzea debekatua dago

Tabakoaren aurkako legeak ostalarien haserrea eragin du

# Tapak eta aurkibideak, prest

Agur esan diegu 2003 urtean,  
Noaua! gaztiak bildu eta 2003eko  
tapa eta aurkibidearekin  
koadernatzeko garaia da.  
Bazkide saretenok, azala eta aurkibidea  
doan jaso ditzakezue  
NOALIA! Kultur Elkarteko egoitzan:



Tapak eta aurkibidea doan eskuratzen dituzte bazkideek.  
Bazkide ez direnek, aldiz, 3 euro ordaindu behar dituzte.  
tapa edo azalarengatik, eta 1,20 euro, aurkibidearengatik.  
Koadernatzea, Lizardin edota Lauroken egin dezakezue.  
Hori bai, koadernatzea berdin-berdin ordaindu behar  
dute bazkideek eta bazkide ez direnek.

## Badok Amairu !!

# Nieves Aranburu Otaegi: "Nire familia gabe ezingo nuke bizi"

**N**ieves Aranburu herriko prentsa saltzailea da, urteak daromatza eliza ondoko kioskoan lanean. Guztiok dakigu nor den, baina bere etxeko giro goxoan egindako elkarrizketaren ondoren, hobeto ezagutzeko aukera eman digu.

1. JAKIRIK GOGOKOENA.  
Arraina.
2. OHITURA TXARREN BAT.  
Asko jatea.
3. ZER GORDETZEN DUZU BETI SAKELAN?  
Musuzapia eta enkargutarako paperak.
4. ZERTAN BERPIZTUKO ZINATEKE?  
Naizen berdinean, ez zait gaizki joan.

5. ZERI DIOZU BELDURRA?  
Hiltzeari eta minari.

6. MIRESTEN DUZUN PERTSONA.  
Asko.

7. EZIN ZAITEZKE BIZI...  
Nire familia gabe.

8. EGINDAKO EROKERIARIK HANDIENA.  
Uzten al ziguten ba egiten?

9. LIBURU BAT.  
Ez naiz oso liburuzalea.

10. FILM BAT.  
"El renegado" pelikula asko gustatu zitzaidan.



11. LEKU BAT.  
Edozein.

12. HERRIKO LEKURIK EDERRENA.  
Arratzain gaina.

13. URTARO BAT.  
Udaberria.

## Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkarte Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil  
 Tlf: 943 36 03 21 / elkarte@noaua.com / www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehenakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaua.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbieto, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Zaloa Arnaiz, Jakoba Errekondo, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.  
 Denborapasak: LUMA, O.E.

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com

Bazkidetza: Aitziber Aranberri.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Zaloa Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza, Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

**IKA MIKA** ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUAk IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA.

NOAUAk ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

## Aurkibidea

ELKARTEEN ARTEKO MUS TXAPELKETA **5. OR.**

KRONISTEN ALBISTEAK KALEJIRAN **6. OR.**

TABAKOAREN LEGEA GUREAN **8. OR.**

Lantokietan nabaritu da legearen pisua. Baina taberna, jatetxe eta gainontzeko ostatueta gauzak ia berdin-berdin jarraitzen dute.



68.727, ELKARTASUN EUROAK **10. OR.**

KZGUNEA, URTARRILEAN, ARRATSALDEZ **13. OR.**

HERRI BIDEAK, KOMUNIKAZIO ARDATZAK **14. OR.**

KIROLDEGIKO BONOIA BERRITZEKO ORDUA **15. OR.**



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Euskal presoak

Euskal Herra!

## Zutabea !!



IDOIA TORREGARAI

**G**oizeko 8:30ak. Zumaiaiko geltokian igo dira eten-gabeko berriketan eta bagoiko ixiltasun adostua (ia gehienok lo egiteko aprobetxatzen dugu bidaia) apurtu dute. Bakoitza bere motxila, mendiko bota, artilezko txapela eta bizpahiru jertse gainean dituztela sartu dira, azken astean bezala.

Benetako hotza egiten du kanpoan. Usurbilgo farmaziko termometroak -2 markatu du eta badirudi hotzak erotu egin duela, zenbakia dar-darka agertu baita nire aurrean estazioko bidean. Zerua garbi dago baina bazter guztiak txuri esnatu dira, izotzak estali baitu dena. Horregatik, trena geltoki batean geratzen denean, barruan goazen guztiok eskertzen dugu inork atea ez irekitzea, izan ere, era honetan, gure lokuluxkarako hain egokia den epeltasuna mantentzen da. Beraz, Zumaiaiko geltokian ateak ireki eta izugarritzko hotzarekin batera bikote hau (gizon eta emakumezkoa) sartu denean, batek baino gehiagok muturra okertu dugu, goizeko bake oasia (!)apurtu digutelako. Hori gutxi balitz, beste tokirik aurkitu ez eta nire aldemenean eseri dira tramankulu eta guzti.

Dagoeneko lorik hartu ezin dudanez, irratia itzali, aurikularrak kendu eta orain arte izan ez dudan atentzioa jarri diet lehenbiziko aldiz aldemenean ditudan bidaikideei,

## Oasia

diximuluz. Dagoeneko bi geltoki pasa dira eta oraindik ez dut asmatu zein hizkuntzatan ari diren hizketan. Arabieraz? Errumarieraz? Belarria adi-adi jarrita ere, ez dut piperrik ere harrapatzen. Itxuragatik ere, ezin jakin ere non-goak diren. Eta zein harreman izango dute beraien artean? Nire barruko kazetari-kuxkuxeroa esnatu da.

Aldemenko aulkian dagoen adineko emakume batek, ordea, nik baino okerrago diximulatu du bikoteak sortarazten dion kuriositatea eta begira-begira geratu zaie. Begirada hori aprobetxatu eta emakume kanpotarra hitz egiten hasi zaio, beharbada bere lagunak dagoeneko kasurik egiten ez diolako, eta berak hitz egiteko gogoia duelako: "Marido y yo querer trabajo. Ir a Bilbao. Papeles". Ez dira hitz asko izan, baina dagoeneko ezezagun horiek askoz ere hurbilago sentitu ditut. Jarraian jakin izan dut Zumaian bizi direla eta Filipinetakoak direla.

Nire geltokian jaitsi naiz eta hantxe utzi ditut, Bilboko bidean. Bihar ere Zumaiko geltokian igoko dira bagoiko guztiak esnatuz, beraien motxila eta trasteekin. Beraien oasiaren bila. Nik ordea, eta nahiz eta ateak irekitzerakotan hotz handia sartuko den, ez dut muturra okertuko. Irratia itzali, aurikularrak kendu eta adi-adi egongo naiz, diximuluz.

Ainhoa Azpiroz - Aitor Landaluze - Jakoba Errekondo - Luis Aranalde - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregarai - Jose Piñas - Aritz Gorriti

## Hemeroteka !!


## Hipodromo inguruan 1.913 etxebizitza egin nahi dituzte

**E**pe ertainera Donostia zabal dadin, Udal Gobernuak Zubietako aukeratu omen du. Eskusaitzeta gunean kartzela eta hainbat azpiegitura jartzea proposatu zuen, eta atzo hipodromo aldean 1.900 etxebizitza inguru eraikitzeko proiektuaren txanda izan zen. «Hipodromo atzealdean eta Lasarte-Oriako zubitik Zubietako aldera doan eremuan egingo lirateke etxebizitzak. Guztira, 1.913 eraiki nahi ditugu. Udal Gobernuak hasieran egindako proposamenari, hipodromoaren atzealdean eraikitzeko proposamenari, EAJk zubiaren bestaldean eraikitzeko proposamena batu diogu. Beraz, oso proiektu garrantzitsua jarri dugu mahai gainean», esan zuen atzo Odon Elorza alkateak.

Egitasmoak 47 hektareatan izango luke eragina. 1.913 etxebizitzetatik erdia babes-

tutakoa izango litzateke; %25ak tasatutako prezioa izango luke eta gainontzeko %25 salmenta librekoa litzateke. Zubietako hirigintza proiektuan, errepideak eta kaleak ere egin nahi dituzte; Lasarte-Oriako ikastolatik hasi eta etxebizitzak bukatzen diren tokiraino, bi kilometro eta erdiko hiribidea sortuko lukete. Ibaiaren bazterrean, oinezkoentzako pasealekua aurreikusi dute; «pasealeku bikaina egiteaz gain, zubia ere egingo dugu, Lasarte-Oriarekin bat egiteko», esan zuen alkateak.

Lasarte-Oriako Udalarekin lan batzordea sortzeko asmoa dutela aurreratu zuen Elorzak: «Zalantzarik gabe, proiektu honek eragin handia izango du Lasarte-Orian. Horregatik, erabakiak udalerrri horretako ordezkariekin hartu nahi ditugu. Zubietako Herri Kontseiluarekin ere bilerak izango



HIPODROMO DAGOEN TOKIAN GERATUKO LITZATEKE. ETXEBIZITZA INGURUAN EGINGO LITUZKETE.

ditugu». Proiektuan, Dana-Ona eta inguruko jatetxeak auzo berrian geratuko lirateke, eta hipodromoaren aparkalekuan plaza handi bat egingo lukete (...).

## Usurbilgo elkartearen arteko VIII. Mus Txapelketan Zubietako Yoko-Garbi nagusi

**A** benduaren 17an Usurbilgo elkartearen arteko VIII. Mus Txapelketa jokatu zen Zubietako Yoko-Garbi elkartearen. Eta etxe-koak nagusitu ziren. Yoko-Garbiko bikoteak Aginaga elkartekoa hartu zuen mendean. Eguzki eta Aitzaga elkarteak hirugarren eta laugarren geratu ziren, hurrenez hurren.

Elkarteen arteko mus txapelketan, 18 afari banatu zitzaizkien 18 bikoteei, bakoitzari bana. Afariak eman zituzten jatetxeei eskerrak eman nahi dizkiete antolatzaileek: Txitxardin, Atxega, Saltxipi, Olarrondo, Araeta, Alamandegi, Saizar, Antxeta, Sekaño, Aialde Berri, Patri, Irigoyen, Aginaga, Iruin, Maykar, Urdaira eta Bordatxo (2 afari).



1. postua: Joxe Antonio eta Jon Arroyo (Yoko-Garbi). Txapela, trofeo, 2 arkume, 2 ardo kutxa eta 4 txanpain botela.



2. postua: Abad-Alberto (Aginaga elkarte). Trofeo, 4 txuleta, 2 ardo kutxa eta 2 txanpain botela.



3. postua: M. Guadix eta J. Guadix (Eguzki elkarte). 2 gazta, 2 ardo botela eta 2 txanpain botela.



4. postua: Beltza-Arkaitz. (Aitzaga elkarte). 2 gazta eta txanpain botela.

## Jende ugari Erregeen Kabalgatan



**U**rtarrilaren 5ean, eguerdiko hamabiak aldera heldu ziren erregeen pajek herriko pilotalekura.

Haur asko zain ziren, erregeei gutunak helarazteko prest. Haur guztien eskutizak jasotzeaz gain, goxoki asko banatu zituzten.



**P**ajek goizez haurren gutunak jaso eta gero, arratsaldean iritsi ziren erregeak Usurbila. San Estebandik gerturatu ziren, zaldiz, eta Santuenea, Kalezar eta Atxegaldetik pasa eta gero frontoira heldu ziren. Jendez gainezka izan zen pilotalekua.

## Karaokea dela eta, Udalaren oharra

**H**onen bidez, urtarrilaren 3an haurrentzako disko-festara hurbildu zinetenoi azalpen hau eman nahi dizuegu: Usurbilgo Udalak Factory enpresaren bidez antolatutako disko-festa euskaraz egitea hitzartua zuen. Factory enpresak emandako azalpenen arabera, disko-festara etorri behar zuen pertsonak azken orduan moto-istripua izan zuen, eta hala-beharrez, azken orduan ordezkoa bilatu zuten (euskaraz hala moduz zekiena). Udala ez da gertaera honen jakitun izan urtarrilaren 4a arte.

TXOKOALDE

ALOÑA LOIDI

## Mundua eta mundukoak



2006ko nire lehen artikulua den honetan, lehenik eta behin urte berri on opa dizuet NOAUA!ko irakurle guztioi.

Sekula entzun al duzue “zergatik eez, zergatik eeez, Olentzero ez da pasatzen Afrikatik...” dioen kantua? Ba nik azken aldiz errege egunean entzun dut eta egun hartan jaso nituen opariek eta ilobak jolasean hain gus-tura ikusteak sortutako poza bat-batean ahaztu zitzaidan. Afrikatik eta munduko beste hainbat herrialdeetatik Olentzerorik eta erregerik pasatzen ez denez, sekula oparirik jaso ez duen haur zein helduetan pentsatzen jarri nintzen eta jaio garen herrian jaio garelako benetan zorte oso ona dugula jabetu nintzen.

Baina zoritxarrez, ez da hor bukatzen nire poza zapuztearen arra-zoia, izan ere nire erloju berrian zer ordu zen begiratu nuen momen-tuan entzun nuen: “urtearen 6. eguna dugun honetan, tratu txarrak direla eta dagoeneko sei emakumezko eta gizonezko bat hil dira beren bikotearen eskuetan”. Albiste honek, berriz, urtearen lehen egunean entzun nuen berri bat ekarri zidan burura: “Hendaiako zaborte-gi batean haur jaio berri bat aurkitu dute hilda. Dirudienez, buruan zituen kolpeek eraman zuten heriotzara, buruhezurra hau-tsita zeukala frogatu baitzuen autopsiak”. Basatikeria hauek egiteko gauza den jendeak ez luke bizitzerik ere merezi.

Ea hasi berri dugun 2006 honetan ez diren 2005ean adina bor-tizkeria gertatzen eta hirugarren munduko milioika jenderen bizi-moduak hobera egiten duen guztion laguntzarekin.

KALEBERRI

BEGOÑA REKONDO

## Debekuaren urtea



Urte berri on denoi! Festa giroa pasa eta gero egunerokotasunera itzuli gara.

Esango nuke, une honetan, gairik entzunena tabakoaren legeari dagokiona dela. Lege honen arabe-ra, leku publikoetan erretzea debekatuta dago, urtarrilaren batetik aurrera. Ez da besterik entzuten, badirudi beste arazo guztiak desagertu egin direla: jende artean, kalean, komunikabideetan... Ederki dakigu jada non erre daitekeen edo non ez; metroen arabe-ra leku batzuetan, enpre-setan berriz arrazoi bat baino gehiago neurtzen da erabakitze-ko orduan, taberna txikietan tabernariak erabakitzen du (herriko tabernetan ez dut aldaketarik nabaritu, handietan berriz toki bat egokitu beharko dute erretzaileentzat). Bestalde, isunak egongo dira legeak betetzen ez dituztenentzat. Inspektoreak egongo ote dira mozorrotuta ikusteko zeinek hausten duen debekua, edo bakoitza izango da ondokoaren salatari?

Bi arrazoi jarri dituzte lege hau martxan jartzeko, fisikoa: hobe omen da gure osasunarentzako ez erretzea eta gainera aldameneko-a errespetatu behar omen dugu, bai noski egia da. Ba al dago kasu honetan begirunea aldamenekoekin? Ez noski. Bestea arrazoi ekonomikoa da: izugarritzko dirutza joaten omen da tabakoak era-giten dituen ondorioak konpontzen, osasun arloan alegia.

Debeku garaietan, bakoitzaren erantzunkizuna askatasunean nagusi.

KALEZAR

JOSEBA PELLEJERO

## 25 urte

Kaixo irakurle. Gabonak pasa berriak ditu-gu baina nahikoa festa izan ez duenaren-tzat hemendik aurrera aukera: atzo eman zioten Gartziategi sagardotegian txotx denboraldiari hasiera. Herriko festak balira bezala, txupinazo-arekin batera, nonahi eta nahi adina jan eta edan.

Baina usurbildarrontzat urte berezia da aurtengoa, 25 urte jadanik Sagardo Eguna ospatzen dela. Maiatzeko azken bigarren igandea egunik garrantsi-tsuena bihurtu da denon-tzat.

Aurtengoa, egun bat baino, sagar eta sagardo kutsua zabaltzearen alde ari gara lanean, ekintza desber-dinak eta zabalak eskaintze-ko asmoz. Erakusketak, hitzaldiak, herri bazkariak, sagardo desberdina proba-tzeko parada... Norbaiti interesgarria iruditzen bazaio gaia edota ekarpentxo bat egin nahi balu, kalean geldiarazi lasai. Laister arte.



ATXEGALDE

NEREA KORTA

## Betegabeko promesak

Eguberriak etorri bezain azkar joan dira, aur-ten ere. Eta aurtun ere egun hauen amaie-ran kaleetan agertzen diren opari paperak baino zerbait gehiago utzi digute. Gastu guztien ostein beherapenekin berpizten den kontsumismo uhol-dea, esate baterako. Afektiboki lortzen ez duguna materialki betetzeko aukera ikusten dugulako erortzen gara horretan, agian. Behar ez duguna merke ikusita behar dugula pentsatzen dugulako, ziur aski. Lege berriak, bestal-de. Kea gora, tabakoa behera, inork ulertzen ez dituen arauak.

Konponbidea izango da, akaso; iskanbilen sortzaile, seguru. Urtea hasi aurretik gizon batek azken aldiz jarri dio eskua ganean bere neskalagunari, azken aldiz jada hilik dagoelako, bere errua maita-tzea eta oparia heriotza izan delako. Eta haizeak eramaten dituen opari paperak bezalaxe hegaz joaten da hau guztia gugandik, ohar-kabea. Egunerokotasunean murgiltzen gara geure arazotxoek arduraturik. Eguna joan, egunak etorri, berehala iritsiko dira berriro gabonak. Berriro argiz jantziko dituzte kaleak, horrela zoriontsuago izango garelakoan. Edo kantuz girotu egunak, goize-tik gauera, alaituko garelakoan. Baina segituan ohartuko gara beti-ko kontua dela, gauzak ez direla aldatzen; benetako arazoek ez dutela konponbiderik, herrian ez daudenak kanpoan jarraitzen dutela eta piezak mugitzen dituzten horiek urte berriarako egin ziz-kiguten promesak, beti bezala, ez dituztela bete.



SANTUENEA

ALEX TELLO

## Antzerkia gustuko



A benduko arrats ilun hartan Chejov-en istorioekin, Sutegin, vodka eta 'bibolin eta txeloen' doinuekin epelean bildu ginen. Sei aktoreen pertsonaiek aktoretzara jokatzeko zuten. Bost istorioetan hamaika pertsonaia 'xelebre' merezi duen antzerkia eginez. Ondoren, herriko ezagunak agurtu (ez nahikoan) eta Nasdrovia-koak zoriondu eta, gustura, hots, ondo pasa nuela esan nien. Hitzik ez, nahi adina adierazteko, antzezlanak 'denborapasa' baino askoz gehiago direlako. "Osagai guztien jokua segi, giro eta istorioetan sartu, akzioan pertsonaia sentitu...". Jendaurreko fikzioan, pertsonak nola heuren benetakotasunetik agertzen eta liberatzen diren sumatzera; gogo biziz joaten naiz antzerkiak eman diezadakedana hartzera. Eskerrik asko!

Usurbilen jendeak oso gustukoa du eta jende ugari biltzen da herrian antzerkia ematen den guztietan. Ongi. Hurrengo noiz? Santixabeletan? Ez. Ezta? Sutegi bertan da emanaldi anitzetako. Baina, bada kalerako antzerkia, baita liburutegietarako. Eta Santuenerako? Eskaintza lan-egunetara zabalduko balitz? Iaz antolatzen zen herri antzerkia egitasmo (eta prozesu) ona iruditzen zait. Ea herritarrekin eta kanpoko jendearekin, gehiago prestatzen diren. Eskaintza eta aukerak herria aberasten dute!

P.D. Sagar eder batean izan nintzen. Urtezharetan. Zintzo mintzo zitzaizkidan: milesker. Deus ez esan zidatenei: milesker ere. Baina, zizare-ar mozkortuei...

URDAIAGA

ALAZNE BEGIRISTAIN

## San Esteban Txiki



Lehenik eta behin, urteberri denoi! Ea 2006 honetan, urte hasieran denok izaten ditugun desio horiek betetzeko aukera izaten dugun.

Gabonak konturatzerako pasa zaizkigu eta oporrak izateko aukera izan ez duzuen horiei gainera, azkarrago pasako zitzaizkizuen egun hauek asteburueran egokitu baitira oraingo honetan.

Baina gure auzo honetan, badugu beste data garrantzitsu bat ospatzeko: abenduaren 26a, San Esteban txiki eguna alegia.

Oraingo honetan, aurrekoan bezala, ez dugu elurrik izan, baina garai honi dagokion modura, nahiko frexko izan dugu. 11:00etan izan zen meza eta handik irteerako ardo beltz, gorri eta txuri aukera izan zen arren, oso gutxi izan ziren salda beroari uko egin ziotenak. Megafonian trikitixa jarri eta haragi egosi eta txistor pintxoak janez, goiz atsegina pasatzeko aukera izan genuen han bildu ginen guztiak.

Gure auzoa txikia izan arren, San Esteban "handiak" ospatzeko aukera dugu. Ez da suerte makala hau ere!



AGINAGA

ANE MANZISIDOR

## Urte berri on denoi!

Zer moduz hasi dugu urtea? 2005 urteari zadio esan eta 2006 urtean sartu berriak garen honetan, Aginagan beti lez jarraitzen dute gauzek. Bi asteko oporraldiaren ostean, ikasleoi klasera itzultzeko garaia iritsi zaigu. Langileek, berriz, aurtengo gabonetan ez dute zorte handirik izan jai egiteko eta hauek betiko martxan jarraituko dute. Bi hitzetan esanda, gauzak normaltasunera itzuli dira.

Aipagarria errege egunean, meza nagusian, Aginagako haurrek egindako jaiotza biziduna. Esan didatenaren arabera, oso jaiotza osatua izan zen. Hiru erregeak, Maria, Jose, artzaiak... ez omen zen inor falta.

Bestalde, angula garaian gaudela eta, laster Donostia eguna datorrela gogora ekarri behar. Gutako hainbatek ez du aukerarik izango angulak usaintzeko ere eta gulekin konformatu beharko. Baina Donostia aldean izango da jendea, angulak jateko gutizia izango duenik.



ZUBIETA

EDORTA AGIRRE

## Kaserna, kuartela

Kuartela da kanpoko jende asko kondizio eskasetan (janari txarra, intimitaterik ez, konfortik ez, ikasteko gogorik ez, bizitzaz gozatze-ko irrikarik ez, jornal eskasa, ofiziorik ez, lanik ez, alferrikako diziplina absurdo zorrotzegia...), etxetik kanpo behin-behingoz edo behin betikoz bizi dadin, herritik kanpora antolatzen den etxe ikaragarri handi, hotz eta inpersonala. Bertan bizi denarentzat kide gehienak dira etsai, salatari, kontrario...

Eta bere "ama aberriaren" alde azken odol tantoa emango duten errumaniar, perutar, espainiar, kolonbiar, errusiar, marokoar... mertzenarioak dira (diru truk dabilzan profesionalak).

Hor biziko denaren bereizgarri nagusia ez omen da umore ona. Horregatik ere jarri dute kuartela herritik kanpora.

Kuartelean bizi dena analfabetoa da baina analfabetotasun nabarmen horretatik ateratzeko ez dauka boligraforik, su-armak baizik; eta agintaritzaren (autoridadea), eta "karta zuria" nahi dutena egiteko. Pentsa Areson Olentzero laugarrenez lapurtu duten guardia zibilei edo Iruñean okina asasinatu zuen polizia nolako zigorra eman zaien. Horiek ere Zubietan izango ditugu, kartzelatik gertu.

Baina gizartea ez da horren kontra agertu. Beti bezala, frankismoan bezala, ez ahaztu: orduan ere, gaurko demokratik isil-isilik zeuden, etxe zuloan sartuta.

Desegin itzazue mundu zabaleko kuartel guztiak, mesedez!



# Ostalariak erreta

Tabakoaren legeak bere baitan dituen kontraesanak jasan behar dituztela diote

**T**abakoaren legeak orri asko bete ditu. Komunikabideetan, kalean, beste hizpiderik ez da izan azken asteotan. Zalaparta ugari baina gauzak lehen bezala jarraitzen dute. Lantokietan nabaritu da legearen pisua. Baina taberna, jatetxe eta gainontzeko ostalariengan gauzak ia berdin-berdin jarraitzen dute. Zortzi hilabeteko egokitza-pen garaia amaitzen denean, orduan ikusiko da legeak zer nolako eragina izan duen. Legearen nondik norakoa alde batera utzi eta ostalariengana jo dugu. Informazio falta salatzeaz gain, legearen kontraesanak azalerazi dizkigute.



LEGE BERRIRA EGOKITZEKO, OSTALARIEK ZORTZI HILABETEKO EPEA IZANGO DUTE.

## Mikel Garmendia, Atxega Jauregia

### “Penagarria da itxurazko legerik ez egitea”

**E**rretzaileentzat egokitutako egunean bilakatu ala erretzea galerazi. Tabernari askoren kezka horixe da. 100 metrotik gorako ostalariak, orde, jai dute. Halabeharrez, obrak egitera behartuta daude. Legea eskuetan, hori egin beharko dute taberna eta jatetxe askok.

NOAUA! Dagoeneko neurririk hartu al duzue?

Mikel Garmendia. Ez dakigu ze erabaki hartu beharko dugun, Eusko Jaurlaritzak oraindik ez digu ezer argitu. Zain gaude ea zerbait esaten diguten. Seguruenik bi gune jarriko ditugula bai jatetxean, bai kafetegian;

baina oraindik ez dugu ezer erabaki. Itxaron egin behar dugu, ezin dugu obra egiten hasi. Edozein momentuan Jaurlaritzak zerbait ezberdina esango balu eta dena aldatu beharko bagenu...

N. Informazio nahikoa jaso al duzue?

M. G. Ez, oraindik ez dago inon jasota zehazki zer-nolako neurriak hartu behar ditugun. Beste saltokietan bai. 100 metrotik beherakoetan ere bai, baina jatetxe eta taberna handietakoa ez dago argi oraindik.

N. Legea, zuen kasuan, onerako ala

txarrerako izango al da?

M. G. Nik uste egokitze-kontua izango dela. Argi dago guztioi ez digula on egingo. Dena den, kontraesanak daudela uste dut. Taberna txiki bat, adibidez, erretzaile-gune bihurtateke: bezeroek erre dezakete, baina langileek ez. Zer egin behar dute orduan? Taberna hutsik utzi eta kanpora irten erretzera? Ez dago ulertzirik. Zer egin behar dute, bestela? Beraiek ez erre eta bezeroen kea arnastu?

Azken finean, egoera berrira moldatu egin beharko gara. Baina penagarria iruditzen zait, oso tristea, itxurazko legerik ez egitea.



## Alazne Saez, Txirristra “Polizia lanak guri uztea ez da bidezkoa”

N. Zein motatako taberna izango da zuena?

A. S. Erretzaileentzat egokitutakoa. Oraindik ez ditugu pegatinak jarri, zain baikaude ostalarien arteko bilera egin arte. Bertan, zenbait zalantza argitu nahi ditugu.

N. Informaziorik iritsi al zaizue?

A. S. Euskal Herriko Ostalaritza Federakundeak bidalitako txosten bat,

tabakoaren aurkako legeari buruzko azalpenekin. Baina beste inondik ez zaigu ezer iritsi.

N. Zuentzat, ona edo txarra izango al da legea?

A. S. Txarra izango da, dudarik gabe. Injustua da polizia lanak guri uztea. Tabernariei hainbeste isun jartzea, jendeak nahi duena egingo duen bitartean. Hain txarra bada tabakoa, guztiz debeka dezatela.



INFORMAZIO GUTXI JASO DUTELA SALATU DUTE  
TABERNARI ASKOK.

## Maialen Lizaso, Ardi Beltz “Erretzaileentzat egokitu dugu”

N. Zein motatako taberna izango da? Neurririk hartu al duzue?

M. L. Erretzaileena izatea aukeratu dugu (erretzaileentzat egokitutako gunea). Jada pegatinak jarri ditugu sarreran, tabako makinan...

N. Informaziorik jaso al duzue?

M. L. Bai, gutunazal batean pegatinak eta informazio apur bat.

N. Ze iruditu zaizu lege berria? Onerako ala txarrerako izango al da tabernarentzat?

M. L. Hasieratik argi genuen erretzaileena izango zela, beraz ez digu buruhauste handirik eman. Txarrena, etortzen diren guztiei adina kontrolatu behar izatea, nortasun agiria eskatzen ibili beharra. Ez al da errazagoa tabakoa debekatzea?



ARDI BELTZ GARAGARDOTEGIKO MAKINAN,  
PEGATINA BIDEZ IPINI DUTEN DHARRA.

## Estankoa ere haserre daude

**H**erriko estankoa kudeatzen du Marisa Ezeizak. Bere ustez, lege honek ez du gauza onik ekarriko, gehiegizkoa dela uste baitu. Hala ere, oraindik informazio gehiagoren zain dagoela esan digu.

NOAUA! Legeari buruzko informazioa helerazi al zaizu?

Marisa Ezeiza. Ez, oraingoz ez. Prentsan irakurritakoa eta Tabaca-

leratik jaso dugun hainbat ohar, besterik ez dakigu. Oso informazio gutxi. Oraindik lurralde bakoitzeko aldaketak ez dituzte jakinarazi.

N. Nola eragingo du legeak zure lantokian?

M. E. Onik ez digu egingo, hori seguru. Jendea oso haserre dago. Erretzaile ohiak oraingo erretzaileen aurka daude. Honek guztiak liskarrak

besterik ez dituela ekarriko uste dut. Baina ez dut iritzi asko eman nahi, oraindik ez baitakit ia ezer.

N. Legea betetzeko neurri bereziak hartu behar izan al dituzue?

M. E. Ezin dugu neurririk hartu, Tabacaleraren menpe baikaude gu. Bilera izango dugu, baina hilaren hamalaura arte ez dugu ezer zehatzik jakingo.

## 68.727, elkartasun euroak

**H**ori da udal aurrekontuaren %1. 68.727 euro. Udalak garapen bidean diren herri ezberdinen artean banatu ohi duen diru kopurua. Diru honen zati bat Euskal Fondoaren bidez kudeatua izango da. Gainontzekoa, beste erakunde batzuen bidez. Herritarrek egindako proposamenen arabera egin da dirulaguntza hauen banaketa. Hala aitortu digu Josune Urkiak, ongizateko zinegotziak. Nikaragua, Rwanda, India, Sahara, Mali, Kuba, Guatemala eta Salvador izango dira dirulaguntza hauen onuradunak.



MUGEN GAINETIK ERAKUNDEAK EGINDAKO ESKAERARI ERANTZUNEZ, NIKARAGUAKO APADEIM ELKARTEAK 5.294 EURO JASOKO DITU.

### Josune Urkia, ongizateko zinegotzia

#### “Garapen bidean dauden herriak babesteko dirulaguntzak dira”

**J**osune Urkia zinegotziak azaldu digunez, babestu diren proiektu gehienak herritarrek udalarekin aurkeztutakoak izan dira. Diru honekin, bereziki, hezkuntza eta azpiegitura mailako ekimenak lagunduko dira. Genero parekidetasuna garatzeko proiektuak, ur-hornidura ziurtatzeko lanak...

**NOAUA!** Garapen bidean diren hainbat herrialde baliatuko dira dirulaguntza hauetatik.

**Josune Urkia.** Udal aurrekontuaren %0,7 aspaldi zehaztuta dago udalarekin babestutako proiektu gehienetan. Baina horietako asko ez dira kopuru horretara ere iristen. Guk %1 eskaini behar genuela oso argi genuen. Gure konpromisoa izan zen eta, iaz bezalaxe, aurten ere agindutakoa bete dugu.

**N.** Nola egin da banaketa?

**A. U.** Garapen bidean dauden

herriak babesteko dirulaguntzak dira. Diru gehiena Euskal Fondoaren bidez bideratu ohi da. Baina iaz konturatu ginen, akaso, diru hori gehiago banatu behar zela. Kontinente gehiagotara iritsi nahi izan dugu aurten. Ertamerika, Asia eta Afrikako proiektuak babestu nahi izan ditugu. Aurten, proiektu batzuk Euskal Fondoaren bidez babestuko ditugu baina beste proiektu batzuk herritarrek eta beste erakunde batzuek egindako proposamenei kasu egingez.

**N. Beraz, proposamen asko herritarren ahotik iritsi zaizkizue.**

**A. U.** Bai, proiektu gehienak usurbildarrek proposaturikoak dira. Gobernu kanpoko erakunde ezberdinekin lanean ari diren herritarren eskaerak izan dira.

**N.** Aukeran, diru gehiago izango balitz...



ERTAMERIKA, ASIA ETA AFRIKARA IRITSIKO DIRA DIRULAGUNTZA HAUEK.

**A. U.** Hori beti gertatzen da. India eta Nikaraguarako eskatutako dena finantzatu dugu. Baina beste proiektu batzuetan proiektuaren zati bat babestu dugu.

**N.** Proiektu horiek, halere, beste erakunde batzuen laguntza ere jasoko dute.

**A. U.** Ez bakarrik erakundeenak. Baita herritar askoren laguntza ere.

## Diruz lagundu diren proiektuak, banan-bana

<b>NIKARAGUA</b> Mugen gaintik erakundearen bidez, emakumeen garapena sustatzen duen APADEIM elkartearen proiektuak sustatzeko dirulaguntza.	<b>5.294,00 euro</b>
<b>RWANDA</b> Gihara herrialdean ura edangarriaren hornitze-sistema berreskuratzeko egitasmoa.	<b>16.000,00 euro</b>
<b>INDIA</b> Nani-Singlote eskualdeko nekazari-gunean sei ur putzu eraikitzeke egitasmoa.	<b>13.776,00 euro</b>
<b>SAHARA</b> Saharar Herriaren Lagunen Euskal Elkarteen Koordinakundeak, elikagaiak bildu eta garraiatzeko karabana berria antolatu du, Euskal Fondoaren laguntzaz.	<b>3.000,00 euro</b>
<b>MALI</b> Tominián, etorkizuneko irakasleak trebatzeko barnetegi bat garatzeko ekimena.	<b>16.000,00 euro</b>
<b>KUBA*</b> Granma hirian, hirugarren adinekoen artean gizarte eta osasun zerbitzuak garatzeko egitasmoa.	<b>3.000,00 euro</b>
<b>EL SALVADOR*</b> Morazan, Segundo Montes komunitatean ur-hornidura ziurtatzeko egitasmoa.	<b>3.000,00 euro</b>
<b>EL SALVADOR*</b> Cuscatlango udalerrietan genero parekidetasun politikak sustatu.	<b>4.036,89 euro</b>
<b>GUATEMALA*</b> Chaleco eskola zabaltzeko egitasmoa.	<b>4.619,21 euro</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>68.727,00 euro</b>

\* Euskal Fondoaren bidez bideratuko diren dirulaguntzak.

## Urtarrilaren 14an amaituko da Sahararen aldeko kanpaina

**S**ahararren aldeko karabana berri bat antolatu dela iragarri genuen aurreko alean. Saharar Herriaren Lagunen Euskal Elkarteen Koordinakundeak sustatu du kanpaina hau, Euskal Fondoaren laguntzaz. Atuna oliotan, azukrea eta konpresak biltzeko guneak topatuko dituzue Dia eta Aliprox-Eroski saltokietan. Urtarrilaren 14a arte, zure elkartasuna adierazteko aukera duzu.

Fronte Polisarioaren eskakizuna aintzat harturik, herri sahararraren aldeko euskal elkarte ezberdinek Sahararen Aldeko Bigarren Euskal Karabana antolatu dute.

2006ko otsailean irtengo da karabana hau Sahara aldera. Kanpaina honen helburu nagusia begibistakoa da: herri sahararrari ahalik eta elikagai gehien eramatea. Era honetan, Tindufeko (Aljeria) errefuxiatuen kanpamenduetan pairatzen duten elikagai falta asetu nahi baita.

### Dian edo Aliprox-Eroskin

Usurbilen, urtarrilaren 14an amaituko da bilketa-kanpaina. Dia eta Aliprox-Eroski saltokietan atuna oliotan, azukrea eta konpresak biltzeko guneak ipini dira. Saltoki horietan, erositakoa pilatzeko guneak aurkituko dituzue.

Udalak egin duen bezalaxe, laguntza



ATUNA OLIOTAN, AZUKREA ETA KONPRESAK BILTZEKO DEIA EGIN DA.

ekonomikoak ere egin daitezke. Hurrengo kontu zenbakian:

Euskadiko Kutxa 3035008094 0800054177

# 2005eko NOAUA! guztiak txukun-txukun biltzeko garaia da

Lauroken, Lizardin eta NOAUA!ko egoitzan eskuragarri daude tapa eta aurkibidea


**T**xotx garaiarekin batera, NOAUA! koadernatzeko garaia iritsi ohi da. 2005 urteko aldizkari guztiak bilduta badituzu, lan erraza duzu. 2005eko tapa eta aurkibidea eskuratu eta Lizardin edo Lauroken koadernatu ahal izango dituzu. Gogoan izan, bazkide zaretan guztiok azala eta aurkibidea doan jaso ditzakezuela NOAUA!ko egoitzan bertan.

Tapa eta aurkibidea doan dira bazkideentzat. NOAUA!n eskura ditzakezue biak. Bazkide ez direnek, aldiz, 3 euro ordaindu behar dituzte tapa edo azalarengatik, eta 1,20 euro, aurkibidearengatik.

Koadernatze lana,

Lizardin edota Lauroken

Koadernatzea, berriz, Lizardin edota Lauroken egin dezakezue. Baina koadernaketa berdin-berdin ordaindu



2005EKO TAPA,  
BETI BEZALA, OLATZ  
GOENAGAK DISEINATU DU.

behar dute bazkideek eta bazkide ez direnek. Ez ahaztu bi denda hauetan ere, eskura dituzuela 2005eko tapak eta aurkibideak.

**Eman beharreko pausoak**

- Lehenik eta behin, 2005 urteko NOAUA! aldizkariaren ale guztiak bildu (196-219).

- 2005eko tapa eta aurkibidea eskuratu. Non? NOAUA! Kultur Elkartean egoitzan, Lauroken edota Lizardi liburutendan.

- Behin hori guztia eskuratu eta gero, koadernatzeko moduan zara. Laurok edota Lizardi liburutendan koadernatzeko zerbitzua eskaintzen dute.

- NOAUA! Kultur Elkarteko bazkide zaretanok tapa doan izango duzue baina koadernatzea ordaindu egin beharko duzue.

**Aleren bat faltan?**

Aleren bat falta bazaizue ez izan gure egoitzan eskatzeko inongo lotsarik, liburukia osatzeko ale guztiak eskura izango dituzue eta. Bazkideok doan, eta besteok ale bakoitzeko 1,20 euro ordainduz.

**LATAILLADE**  **ITURGINTZA**

GASA  
BEROKUNTZA  
MANTENIMENDUA ETA  
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Aritzitxo 8, behea · 943 363 348 · 609 888 021

**MAHUKA**  
ETXEBESTE KALEA, 3 · 943 361 100

Hemen aurkituko duzu  
gizon eta emakumezkoen  
**MODAKO ARROPA**

Kale nagusia, 10  
Telf: 943 37 33 48  
943 37 09 13

Ojandegia - Gozotegia

**LABE-GOXO**

**LATXA**  
Kestec denda

Janari prekozinatuak  
Kongelatuak  
Bertako produktuak


Callesana 2, Oñati · Telf: 606 301 803

**MIKEL IZAGIRRE**  
ELEKTRIZITATEA

943 365 095  
609 068 111

5012 ARGI ETXEA/37·KALZAR

**Zendoia**



Kale Nagusia 35 · 943 37 40 21

## Hernaniko Aizpuru farmaziak egingo ditu 2006ko gaueko guardiak

**H**ernaniko Aizpuru farmaziak egingo ditu gaueko guardiak aurten. Gaueko guardiak egiteko modua iaz aldatu zen eta farmazi bakar batek egiten ditu orain urte osokoak. Iaz, gaueko guardia denak Chuclak egin zituen. Aurten, aldiz, Aizpuru farmazian eskainiko dute zerbitzu hori. Gaueko guardia 22:00etatik goizeko 09:00ak arte izango da, orain arte bezalaxe.

Helbidea hauxe duzue:  
Latsunbeberri 11, Hernani.  
Telefonoa: 943 336 077.



Argazkia: Hernaniko Kronika

LASARTE-DRIA, ASTIGARRAGA,  
HERNANI ETA USURBILGO GAUEKO  
FARMAZIAK AIZPURUK EGINGO DITU.

## Urtarrilean arratsaldez irekiko dira KzGuneko atea

**G**abonetako oporraldietan itxita gegoen da KzGunea. Baina behin oporrak pasa eta segituan, urtarrilaren 9an bertan zabaldu ziren KzGuneko atea. Urtarrilean arratsaldeko ordutegian egongo da irekita, hau da, 16.00etatik 20.00etara. Interneten nabigatzeko aukeraz gain, ikastaroak ere eskaini ohi dira.

Urtarrilaren 23tik otsailaren 3a bitartean, nabigatzen ikasteko ikastaro berri bat emango dute, 16:00etatik 18:00etara (gaztelaniaz).



IKASTARO UGARI ESKAINTZEN  
DA USURBILGO KZGUNEAN.

## Larunbatean, Aitzagan, Bide Eginez prozesuaren 3. batzarra

**L**arunbata honetan, hilak 14, Bide Eginez prozesuaren hirugarren batzarra egingo du Batasuna alderdiak. Arratsaldeko 16:00etan, Aitzagan. Gai ordena:

- Prozesuaren balantzea.
- Jasotako ekarpenen azalpena zein bozketa.
- Mahai Nazionalaren hautaketa.

## Santa Agedako eskea prestatzeko bilera Zubietan

**O**tsailaren 3a ganean dugu. Santa Agedako koplak gogora ekartzeko eguna izango da. Batzuk hasi dira prestatzeko lanetan. Zubietan, esate baterako, Santa Agedako eskea prestatzeko bilera ostiral honetan egingo da (hilak 13). Hitzordua, arratsaldeko 19:00etan Zubietako Eskola Txikian.



UDARREGIKO IKASLEAK ERE  
KANTARI IRTEN OHI DIRA SANTA  
AGEDA BEZPERAN.

**txirriStra**  
KONTSEJU ZAHARRA 13  
943 300 400

pintxoak  
ogitartekoak  
piñatek konbinatuak

**TABERNA**

Larazaintza  
sartak

**URTINEA**  
urtinea@euskalnet.net

Lareak  
koroak  
Landareak

Sau Esteban  
943 360 055  
943 366 054 fax

# Herri bideak, komunikazio ardatzak

**U**surbilgo herri bideak zein diren eta zein egoeratan dauden argitu nahi da. Udalak, dagoeneko, lehen urratsa eman du. Abenduko azken udalbatza plenoan, hsieraz onartu zen herri bideen inguruan egin den proposamena. Laster zabalduko da alegazioak egiteko epea. Lurjabeek, jabe mugakideek, edozein eskubideren titularrek eta, orohar, herriar denek alegazioak egiteko aukera izango dute.

Herri bideen inbentario berriari hasierako onespina eman zaio. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den unean, alegazioak aurkezteko hilabeteko epea zabalduko da. Begoña Rodriguez udal teknikariak eman dizkigu inbentario honen inguruko xehetasunak.

## Hiru motatako bideak

Herri bideen inbentarioaren helburua Usurbilgo herri bideak zein diren eta zein egoeratan dauden ezagutzea da. Bideak hiru motatakoak izan daitezke.

**-Herri bideak.** Hauetan jabetza herriarena da eta erabilpena ere bai.

Edonork du eskubidea bertatik ibiltzeko eta zaintze eta mantentze lanak udalari dagozkio.

**-Erabilpen publikoko bideak.** Hauetan jabetza partikularra da, baina honen adostasunez erabilpena herriarena da (erabilpen hitzarmen bat egoten da tartean gehienetan).

**-Bide partikularrak.** Bai propietatea eta baita erabilpena ere partikularrak dira. Erabilpena jabearena edo, jabetza bakar batena izan arren, auzotar talde batena izan daiteke (adibidez, lur sail multzo batera joateko erabili behar den bide bat izan daiteke lur sail horien jabeen erabilpenerako izendatua).

## Gorputz bideak

Herri bideak komunikazio ardatzak dira. Auzoak edo herriak komunika-



IRUDIAN, ANBUTIK IBINDOSERA DOAN BIDEA.

tzen dituzte. Hauetako asko "Gorputz bideak" dira, alegia, baserrietatik gorpuak zegokion elizara eramateko oinarritzko bideak.

Hala ere, bide asko daude herri bide ez direnak, hau da partikularrak dira eta lur sail batzuetara iristeko besterik ez dira.

## BEGOÑA RODRIGUEZ

"Lan honekin udalak argi izango luke zein lirakeen herri bide eta zein ez"

## Nola jakin bide bat herri bide den ala ez?

Auzotarrei galdetzen zaie lehenik. Ondoren lur sailen eskriturak begiratzten dira honi buruzko aipamenik jasotzen ote duten eta udaleko erregistroa ere begiratzten da bideari buruzko hitzarmenik jasotzen ote den.

Datu hauek bildu ostean batzuetan garbi ikusten da bidearen izaera. Beste batzuetan, ordea, auzotarren esanak ez datoz bat, eskrituretan kontraesanak biltzen dira eta udaleko erregistroan ez da ezer aurkitzen. Kasu hauetan logika-

erabiltzen da proposamen bat egiteko, bildutako datuen arabera, inguruko bideen arabera, bidearen ezugarrien arabera eta abar.

## Lehen proposamena, jendaurrean

Lan hau 2005eko udaberrian hasi zen eta jada Usurbilgo herri bideei buruzko lehen proposamen bat jaso da. Lehen onespenerako dokumentua jendaurrean jarriko da. Helburua bikoitza da: batetik, orain baino lehen bere iritzia ematerik izan ez dutenak aukera izatea; eta bestetik, beraiek esandakoarekin bat ez datozen proposamenak aztertzeo aukera eta alegazioak ezartzeko aukera izatea.

## Bideen mantenua

Jendaurreko epean bildutako guttiarekin eta dagozkion aldaketak egin ondoren, behin betiko onespina emango lioke udalak herri bideen inbentarioari.

Lan honekin udalak argi izango luke zein lirakeen herri bide eta zein ez.

Hemendik aurrera beste fase bat izango da bide hauen mantenua eta zenbait kasutan berreskuratzea nola bideratu.

## Kiroldegiko abonodun egiteko aukera

**2**006 urteak aldaketak ekarri ditu Oiardo kiroldegira. Bazkide eta prezioek gorantz egin dute, ordutegia eguerdiko 14.00ak arte luzatu da astelehenetik ostiralera eta garbiketa zerbitzuan ere aldaketak izan dira. Hala ere, ez dira aurtengo berrikuntza baka-rrak izango. Kirol Patronatoak kiroldegia ezinduentzat egokitu nahi du. Horretarako igogailu berri bat jarri eta ateen zabalera handitu nahi dute.

Kiroldegia 10 urte beteko ditu aurten. 1990. urtean ireki zituen ateak lehen aldiz eta herriak ilusio handiz hartu zuen zerbitzu berri hau. Herritar ugari hartu zuen orduan abonodun egiteko erabakia, kirolgune estalia erakargarria baitzen Usurbilen. Asko eta asko dira orain ere bertako zerbitzu desberdinak erabiltzen dituztenak.

Orain arte bazkide direnek beraien txartela berri eta urte osorako abonoa izan nahi duten erabiltzaileek abonodun berri egiteko aukera dute orain. Kirol Patronatoak horretarako aukera eskaintzen du urte hasieran. 2006. urterako prezioak kaleratu dituztenez, aldaketaren bat nahi duten bazkideek kiroldegian eman beharko dute horren berri, eta urte osorako bazkide egiteko garaia ere orain da.

Azken bi urteetan bezala, abono desberdinen nahiz sarrera eta zerbitzuen prezioak garestitu egin dira. Duela bi urte, igerilekua irekita dagoen bitartean



AURRERANTZEAN, 14:00AK ARTE ZABALIK IZANGO DA KIROLDEGIA.

sorosle bat edukitzera behartuak izan zirenez, aparteko kostu horri urtez urte aurre egi-tea erabaki zuten eta urteroko igoera normalean baino handixeagoa izan da aurten ere.

Abonoei dagokionez, mota desberdinetakoak daude. Urte osokoari dagokionez, 120 euro ordaindu beharko dute 18 urtez gainekoek, iaz baino 8 euro gehiago. Eta 75 euro 18 urtez azpikoek, iaz baino 4 euro gehiago. Abono familiarra, berriz, 182 euro kostako da, 2005ean baino 11 euro gehiago. Bestalde, abonodun ez direnentzat sarrera 4,50 eurokoa izango da 18 urtez gorakoentzat eta 2,80koa, 18 urtez beherakoentzat.

Ordutegian ere izan da aldaketarik. Erabiltzaile batzuk egun osoko ordutegia

eskatu izan dute askotan eta Kirol Patronatoan gai hau eztabaidatu ondoren, astelehenetik ostiralera goizean 12.30ean itxi beharrean 14.00ak arte luzatzea erabaki zuten. Uda iritsi bitartean mantenduko dute ordutegi hau eta arrakastaren arabera erabakiko dute gero zer egin.

Aurten, gainera, eraberritze-lan batzuk ere egin nahi dira Oiardo kiroldegian. Urteko aurrekontua onartu gabe badago ere, Iñaki Yurramendik esaandakoaren arabera kiroldegia ezinduentzat egokitzea da Kirol Patronatoaren asmoa: *“Ezinduak kiroldegiko leku desberdinetara joateko igogailu berria jarri eta hainbat ateen zabalera handitu nahi dugu”.*

Josu Aranberri

### Neskak eta errejionalek Zubietan jokatu dute

Usurbil Futbol Taldeko emakumezkoen eta errejionalen taldeek Zubietako belar artifizialeko zelaian jokatu dituzte euren etxeko partidak asteburu honetan. Nesken taldeak pasa den jardunaldian 1 eta 2 irabazi zion Grosekori Amaia Zumeta eta Amaia Añorgaren golekina eta asteburu honetan Urnieta taldearen aurka jokatu dute ligako azken neurketa. 1. Errejional mailako taldeak, berriz, asteburu honetan ekingo dio bigarren itzulari eta Lengokoak talde izango dute aurrez aurre Zubietan.

### Eskubaloia partida garrantzitsua Oiardon

Lehen Territorial mailako eskubaloia taldeak neurketa garrantzitsua jokatu du asteburu honetan Oiardo kiroldegian. Saillapenean bigarren postuan kokatuta dagoen Ford Mugarri Arrasate taldearen aurka neurtuko dituzte indarrak eta usurbildarrek garaipena lortuaz gero lehen postuetara gerturatuko lirakeke, partida bat gutxiagorekin, hauengandik 4 puntura baitaude bosgarren postuan. Izan ere, pasa den asteburuan 27 eta 31 irabazi zuten Arrikruz Oñatiko Kobak taldearen aurka.

### Asier Arruti pilotaria txapelkunorde Altzan

Altzan jokatu den gabonetako txapelketa ezin izan du eskuratu Asier Arruti herriko pilotariak. Arrizabalaga aurrelariarekin batera finala jokatu zuen pasa den urtarrilaren 8an Roteta eta Loiola bikotearen aurka Altzako pilotalekuan eta 22 eta 12 galdu zuten. Aurretik, finalerdietan Urmeneta eta Uzkudun 22 eta 16 garaitu zituzten. 2005. urte ikusgarria egin zuen senior mailako herriko pilotariak eta aurten ere iazkoa errepikatu eta gaintzeko moduan izango dela espero dugu.





## Agenda !!

### Urtarrilak 13, ostirala

- Santa Agedako eskea prestatzeko bilera Zubietako Eskola Txikian, 19:00etan.

- Aretxabaletan, 20:00etan, eskuz binaka nagusiak 2. maila: Aretxabaleta-Andatzpe Peña Pagola (Huizi-Olaizola).

### Urtarrilak 14, larunbata

- Sahararen aldeko kanpainan parte hartzeko azken eguna. Atuna oliotan, azukrea eta konpresak biltzeko kajak Dia eta Aliprox-Eroski supermerkatuetan.

### Urtarrilak 15, igandea

- Goizeko 10:00etan bi partida Usurbilen. Eskuz binaka nagusien 1. maila: Andatzpe Peña Pagola 2 (Portu - Aranburu)-Aretxabaleta 2.

Eskuz Binaka nagusien 1. maila: Andatzpe Peña Pagola 1 (Aranburu-Landa) - Aretxabaleta 1.

### Urtarrilak 17, asteartea

- Donostiako Kubo Aretoan "Abstrakzioak/Figurazioak 1940-1975" izeneko erakusketa ikusteko azken eguna. Tartean, Jose Luis Zumetaren lanak.

### Urtarrilak 23/ otsailak 3

- Interneten nabigatzen ikasteko ikastaro berri bat KzGunean, 16.00etatik 18.00etara (gaztelaniaz).

## Kapoeira ikastaroa Santuenean

Kapoeira ikastaroa jarri nahi da martxan Santueneko lokal berrian. Brasilgo irakasle bat prest dago ikastaroa emateko. Beraz, taldea osatuko balitz berehala jarriko litzateke martxan. Interesa duenak deitu dezala 943 371535 edo 943 365031 telefonoetara.

## Literaturaren txokoa !!

### 'Esan gabe neukana'

Agurtzane Juanena, liburuen egilea, gaztetatik hasi zen borroka politikoan. 1975ean atxilotu zuten 18 urteko militante gaztea, unibertsitateko ikaslea zela. Larriki zauriturik irten zen komisiariatik, eta urte eta erdi behar izan zituen zauriak osatzeko. Barruko oinazeak, ordea, askoz gehiago iraun zion. Hain zuzen, hustu behar horri erantzunez idatzi



du liburua, herri honen historian garrantzizkoa den zerbait konpartitu nahian. Koldo Izagirrek atondurik, hitz juxtuz askatu du Agurtzane Juanenak bere barrena, sentimentalismo errazetik ihesi. «Komisarian gertatu zitzaidanaren kontakizun hori gordea eduki dut urteetan eta urteetan. Gaztelaniaz idatzi nuen, baina alfabeto grekoz, amak aurkitzen baldin bazuen ere, uler ez zezan» aitortzen du Agurtzane, hogeita bost urte geroagora arte irakurtzen utzi ez duenaz hitz gitean.

## Egin kontu !!

### Zumetaren lanak, Kursaalgo Kubo Aretoan ikusgai

Beste artista askorekin batera, Antonio Tapias, Eduardo Chillida, Jorge Oteiza eta Jose Luis Zumetaren lanak Gerra Zibilaren amaieratik Franco jeneralen heriotzaraino eman zen loraldi artistikoaren adierazle dira. Donostiako Kursaalgo Kubo Aretoan artista hauen hainbat lan bildu dituzte. Sarrera doanekoa da eta egunero dago zabalik: goizez, 11:30etik 13:30era. Arratsaldez, 17:00etatik 21:00etara. Hori bai, erakusketa urtarrilaren 17an amaituko da.



URTARRILAREN 17AN AMAITUKO DA KUBO ARETOKO ERAKUSKETA.

Alejandro Tapia, Tolosan "Naturaren Ildotik", Alejandro Tapia pintorearen erakusketa urtarrilaren 31a arte izango da Tolosako Aranburu Jauregian.

ALBISTEAK EDIZIO JARRAITUAN ALDIZKARIA ON LINE INKERTAK FONDUAK FORTA

**www.noaua.com**

USURBILGO ATARIA

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. © 943 362 725

## ETXEBIZITZA

- Usurbilgo bikote gazte batek pisua alokatu nahi-ko luke Usurbilen. 679 185 102.
- Usurbilen pisua bat alokairuan hartuko nuke. Tel: 630 032 779.
- Usurbilen edo inguruetan 3 haur eta 2 helduentzat alokairuan hartzeko pisu bat bilatzen dut premiaz. 620 646 769.
- Usurbilen alokairuan etxe bat behar dugu. Ordainketa bermatua. 943365737.

## SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Garaje itxi bat alokatzen da Etxealdian , 22m2, kotxea erraz sartzen da, 76 euro. Interesatuak deitu arratsalde 943373185 telefonora.
- Lokal bat daukagu alokairuan 70m2koa. Interesatuak deitu 943 372 034.
- Garaje itxi bat salgai daukagu Erreka Txiki Kalean. 676636038.
- Garaje bat daukat alokairuan jartzeko Kale Nagusian, 240 eurotan. 100m2takoa da eta kotxea erraz sartzen da. 943 458 284.
- Aparkalekuak salgai Bizkarra 1-8 etxe taldean, Kale Nagusia 3. 607 905 859 (Imanol).
- Honda Dominator 650 cc motorra egoera oso onean. 667 172 010 (Jon).
- Garaje itxi bat alokatzen da Kale Nagusian. Interesatuak: 943 361 235.

## LANPOSTUAK

## Lan-eskaerak

- Bakeiran snow-ko klaseak eta ikastaroak ematen dira. Alojamentua ere eskaintzen da. Informazio gehiago: 652 651 906 / www.upriding.com webgunea.
- LH eta DBHko klaseak ematen ditut euskaraz zein erdaraz. Majisteritza ikasia eta esperientziaduna klase partikularrak ematen. 635 209 193.
- Usurbilgo bi neska eskaintzen dira LH eta DBHko haur eta gazteei klase partikularrak emateko. Interesaturik bazaude deitu telefono honetara: 653711574 (Ainara eta Nerea)
- Emakume bat eskeintzen da etxeko-lanak egiteko, pertsona helduak zaintzeko edota antzeko lanetarako. 620 646 769.
- Lan egiteko gogoia daukat. Kanpotarra naiz eta edozein lan egingo nuke: portalak garbitu, plantxa egin, kanguro lanak astebukaeratan, pertsona helduekin... 677 552 258 (Sharon).

- Kamarera euskaldun bat eskaintzen da astelehenetik ostiralera lan egiteko. 667 694 469.
- Emakume bat eskaintzen da astelehenetik ostiralera, pertsona helduak edo ezinduak zaintzeko. Telefonoa: 626 641 155 Mariaje.
- Taberna batean egingo nuke lan edo antzeko zerbaitetan. 652 757 495.
- Portalak eta eskaierak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. 690 784 113.
- Oporretako, ospakizunetako, edozein motatako bideoak montatzen dituen profesionala eskaintzen da. 943555835/ 617242660.

## Lan-eskaintzak

- Etxeko lanak egiteko eta haur bat zaintzeko egun osoz, pertsona baten bila gabiltza. 645403905.
- Astelehenetik ostiralera, goizeko 10:00etatik 12:00etara, pertsona heldu bat zaintzeko norbait behar dugu. Interesatuak deitu: 600415541.
- Kontzertuetan, produkzio lanetan aritzeko lanpoltsa osatu nahi da. Tel. 943 393 318.
- Astean behin, bizpahiru orduz etxeko lanak egiteko pertsona bat behar dut. 605 707 643.

## BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Graduaturako betaurrekoak galdu ditut, Bordaberri kale inguruan. Aurkitu badituzue NOAUA!ra ekarri mesedez.
- Txakurkumeak oparitzen ditugu. Ama artzai txakurra alemana eta aita ezezaguna baina azkarra. 943366872 (Ander eta Joxe Mari)
- Fatxada margotzeko pintura naranja salgai daukat, kalitate onekoa eta prezio onean. 635 209 235.
- Bustner Fun modeloko 5 pertsonentzako karabana salgai. Komun kimiko bat eta sukaldea. 1.200km. Prezioa 6.000 e. 629 680 214.
- Umea eramateko mendiko motxila bat erosiko nuke. Tlfnoa: 605 72 48 24
- Emuak salgai. Bi emu, arra eta emea modu onean saltzen dira. 657 633 461.
- Itsasoan arrantzan egiteko kainabera behar dut. Ahal bada teleskopikoa. Doan edo merke antzean emateko prest bazaude, gustura hartuko nuke. Tel: 676 37 48 12.
- Pago egur txikitua eta lehorra salgai. Etxera eramaten da. Tf. 615 755 762.

## Txerrimunik ordainetan !!



## Zorionak bikote!

Aitonak urtarrilaren 4an egin zituen urteak eta Eiderrek urtarrilaren 12an beteko ditu. Zorionak etxeko guztien partez eta muxu handi bana biei.



## Zorionak Ana eta Koro!

Urtarrilaren 13an Anak eta urtarrilaren 15ean Korok betetzen dituzue urteak. Zorionak eta muxu handi bana familia guztiaren partetik!

## Telefono interesgarriak !!

- Udala.....943 37 19 51
- Udaltzaingoa.....943 36 11 12
- Obrak eta Zerbitzuak .....943 37 01 48
- Eusko Tren.....943 47 09 76
- Anbulategia..... 943 36 20 13
- Udarregi Ikastola..... 943 36 12 16
- Udarregi (Agerialde).....943 36 38 95
- Haur Eskola (Kalezar).....943 37 40 61
- Oiarde kiroldegia.....943 37 24 98
- Zumarte .....943 37 15 94
- Etumeta euskaltegia .....943 37 20 01
- Taxi geltokia.....943 36 21 78
- D.Y.A. ....943 46 46 22

- Gure Pakea.....943 37 32 28
- Gure Elkartea.....943 37 17 51
- Arrate Egoitza.....943 36 63 40
- Bake epaitegia.....943 37 23 36
- Oa farmazia.....943 37 60 76
- Iturralde farmazia.....943 36 33 95
- Zubietako Batzarra.....943 37 20 77
- Argindarra (Iberduero).....943 47 09 76
- NOAUA! aldizkaria.....943 36 03 21
- Ertzantza.....112
- Suhiltzaileak.....112
- Larrialdia.....112
- Anbulantziak.....112

## Oharrak - Txerrimunik ordainetan doaneko atalak dira

Datorren alea urtarrilaren 20an argitaratuko dugu. Zorion-agurrak urtarrilaren 16a baino lehen ekarri edo bidali.

E-mail: erredakzioa@noaua.com

Posta helbidea: Bordaberri 3 Eguzkitzaldea  
20170 Usurbil

# ABERASTU ZAITEZ! EGIN ZAITEZ BAZKIDE

NOAUA! Kultur Elkarteko bazkide egiten bazara,  
"Usurbilgo baserriak eta baserritarrak" liburua jasoko duzu doan  
Usurbildarrentzat egindako aldizkaria



## BAZKIDETZA ESKAERA

IZEN DEITUAK:

JAOTZE DATA:

SE-XIIA:

NA ZENBAKIA:

HELBIDEA:

HERRIA:

POSTA KODEA:

BIZIBIDEA:

TEL:

E-MAIL:

BANKETXEA:

KONTU KORRONTEKO ZKIA (ZDUNIBAK):

**Bazkide KUOTA: 36 € (Uztallean kobratuko da kontu korrontetik)**

[elkartea@noaua.com](mailto:elkartea@noaua.com) • ☎ 943 360 321



# Lehiaketa

Astekaria jarri dugu martxan.

Ze itxura hartu diozu? Gustukoa al duzu?  
Gai honen inguruan, poema bat edo bertso bat  
(bi, hiru...edo 27) idazteko gai al zara?  
Noski baietz! Partehartzaile guztien artean

**Pantxoa eta Peioren bi disko hauek**  
zozketatuko ditugu. Animo eta zorte on!

Partehartzeko azken eguna:  
urtarrilak 13, ostirala.



Bidali erantzuna e-mailez [erredakzioa@noaua.com](mailto:erredakzioa@noaua.com).  
Postaz Bordaberri 3 Eguzkitzaldea -20170 USURBIL (Gipuzkoa).

# www.noaua.com

**Albisteak edizio jarraituan**

**Zorion-agurren tartea**

**Eztabaida foroak**

**Agenda**

**Zerbitzuak**

**Eguraldia**

**Aldizkaria, on line**

## **Informazioa eskura**

**Usurbil ezagutu:** Usurbili buruzko informazioa zure eskura

**Zerbitzuak:** goardiako farmazien egutegia, garraio publikoak, telefono eta helbide interesgarriak

**Jaiak iruditan:** Usurbilgo jai guztiak argazkitan.

## **Partehartzailea**

**Edonor izan daiteke berriemaile.** Albisteak sarean ipintzeko prestatu dugu webgunea. E-posta bat idaztea bezain erraza da.

## **Aldizkaria on line**

**2003ko irailetik honako NOAUA! aldizkari denak sarean daude.**

Klik egin "Jaso aldizkaria zure posta elektronikoa" atalean, hutsuneak bete eta aurrerantzean etxean baino lehen jasoko duzu aldizkariaren on line bertsioa zure posta elektronikoa.

# **Usurbildarrentzat eginiko webgunea**